Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko maiatzaren 20a, astelehena — 93 — Lunes, a 20 de mayo de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*239/2019 Foru Agindua, maiatzaren 15ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 22ko 173/2015 Foru Agindua, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izeneko 586 eredua onartu eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituena.*

Apirilaren 22ko 173/2015 Foru Aginduaren bidez, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izena duen 586 eredua onartu zen, baita hura aurkezteko era eta prozedura ezarri ere.

Martxoaren 13ko 161/2019 Foru Aginduak aldaketak sartu zituen «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» aurkezteko erabiltzen den 586 eredu horretan; besteak beste, ezarri zuen 586 eredua paperean zein Internet bidez aurkeztu daitekeela, azken kasu horretan bitarteko elektronikoak erabilita, eta, horretarako, interesdunak «Zergabidea» plataformara jo beharko duela, aitorpenak eta zerga arloko idatziak prestatu eta aurkezteko eratu den webgunera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kokatuta dagoen https://egoitza.Gipuzkoa.eus helbidean sartuta.

Aurkezten diren aitorpenetan erregistro asko zerrendatu ohi direla ikusita, komenigarritzat jo da aukera gaitzea eskurapenak edo/eta salmentak «Zergabidea» plataforman 586 eredua betetzeko ageri den laguntza programara inportatu daitezen, zergapekoak edo ordezkariak prestatuko duen eta Zerga Administrazioak ezarritako diseinuak bete behar dituen fitxategitik abiatuta.

Horrek, ezinbesteko egiten du bete beharreko fitxategiaren diseinua alde aurretik onartzea foru agindu bidez.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Aldatzea apirilaren 22ko 173/2015 Foru Agindua, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izeneko 586 eredua onartu eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituena.*

Honela aldatzen da apirilaren 22ko 173/2015 Foru Agindua, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izeneko 586 eredua onartu eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituena:

*Bat.* 4. artikulua honela geratzen da idatzita:

«4. artikulua. 586 eredua aurkezteko modua.

1. 586 eredua paperean zein Internet bidez aurkeztu daiteke, azken kasu horretan bitarteko elektronikoak erabilita. Horretarako, interesdunak «Zergabidea» plataformara jo beharko du, aitorpenak eta zerga arloko idatziak prestatu eta aurkezteko

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 239/2019 de 15 de mayo, por la que se modifica la Orden Foral 173/2015, de 22 de abril, por la que se aprueba el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», y se establece la forma y procedimiento para su presentación.*

Por Orden Foral 173/2015, de 22 de abril, se aprobó el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», y se establecieron la forma y procedimiento para su presentación.

Por Orden Foral 161/2019, de 13 de marzo, se modificó el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», estableciendo la presentación tanto en soporte papel como por medios electrónicos a través de Internet, para lo cual el interesado deberá acceder a la plataforma «Zergabidea» para la elaboración y presentación de declaraciones y escritos tributarios disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se accederá a través de la dirección electrónica https://egoitza.Gipuzkoa.eus.

La concurrencia de declaraciones con una numerosa relación de registros, aconsejan habilitar la importación de las adquisiciones y/o ventas desde un fichero elaborado por el obligado tributario o su representante, con los diseños previamente establecidos por la propia Administración tributaria, al programa de ayuda para elaborar el modelo 586 incluido en la plataforma «Zergabidea».

Ello, requiere la previa aprobación por orden foral del diseño del fichero a confeccionar.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo único. Modificación de la Orden Foral 173/2015, de 22 de abril, por la que se aprueba el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», y se establece la forma y procedimiento para su presentación.*

Se introducen las siguientes modificaciones en la Orden Foral 173/2015, de 22 de abril, por la que se aprueba el modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero», y se establece la forma y procedimiento para su presentación:

*Uno.* El artículo 4 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 4. Forma de presentación del modelo 586.

1. La presentación del modelo 586 podrá efectuarse en soporte papel o por medios electrónicos a través de Internet, para lo cual el interesado deberá acceder a la plataforma «Zergabidea» para la elaboración y presentación de declaraciones y

EK\CV GAO-I-2019-03241

eratu den webgunera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kokatuta dagoen https://egoitza.Gipuzkoa.eus helbidean sartuta.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, 1. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen zergapekoek nahitaez internet bidez aurkeztu behar dute 586 eredua, foru agindu horretan xedatutakoari jarraituz.

3. Eredua internet bidez aurkezteko, bitarteko elektronikoak erabilita, aipatu den ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan jasotako prozedurari jarraitu beharko zaio.

Aurkezpen elektronikoa egiteko, zergapekoak edo, hala badagokio, aurkezleak, Ogasunaren webguneko «Zergabidea» plataforman 586 eredua prestatu eta aurkezteko eskuragarri dagoen laguntza programa erabili beharko du. Programa horren bitartez, posible da eskurapenak edo/eta salmentak zergadunak prestatutako fitxategitik inportatzea, betiere foru agindu honen II. eranskinean jasotzen diren diseinu logikoak betetzen baditu.

4. 586 eredua paperean aurkeztu nahi bada, beharrezkoa izango da ereduari dagokion inprimakia aurkeztea «Zergabidea» plataforman behar bezala bete eta gero. Inprimakiak bi ale izango ditu: Administrazioarena eta interesdunarena.

Paper bidezko aurkezpena bi tokitan egin ahal izango da: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan (Errotaburu pasealekua 2 - 20108 Donostia) edo, bestela, Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan.

*Bi.* II. eranskina onartzen da, foru agindu honen eranskinean jasotzen den edukiarekin.

*Azken xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2019ko maiatzaren 15a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(3241)

ERANSKINA

«II. eranskina.

«Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izena duen 586 eredua telematikoki aurkezteko sortzen diren fitxategiek bete beharreko diseinua.

Inportatu beharreko fitxategiak testu formatua izan behar du, eta eremuak (;) karakterearekin bereiziko dira.

Aitorpeneko 500 salmenta edo/eta 500 eskurapen inporta daitezke gehienez (gehieneko erregistro kopurua), eta, beraz, zergapekoek erregistro gehiago baldin badituzte aitorpen bat baino gehiago sortu beharko dute.

Inportatu beharreko erregistroaren formatua:»

escritos tributarios disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se accederá a través de la dirección electrónica https://egoitza.Gipuzkoa.eus.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, los obligados tributarios a los que se refiere el apartado 1 del artículo 1 de la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, estarán obligados a la presentación por Internet del modelo 586, de conformidad con lo dispuesto en dicha orden foral.

3. La presentación por medios electrónicos a través de Internet se efectuará siguiendo el procedimiento previsto en la referida Orden Foral 320/2017, de 28 de junio.

Para efectuar la presentación electrónica, el obligado tributario o, en su caso, el presentador, deberá utilizar el programa de ayuda a través de la plataforma «Zergabidea» para la elaboración y presentación del modelo 586 que se encuentra disponible en la página web de Hacienda. Dicho programa ofrece la posibilidad de importar adquisiciones y/o ventas desde un fichero elaborado por el contribuyente, que se ajuste a los diseños lógicos incluidos en el anexo II de la presente orden foral.

4. La presentación en papel se efectuará mediante el impreso correspondiente al modelo 586, cumplimentado a través de la plataforma «Zergabidea», y constará de dos ejemplares; para la Administración y para el declarante.

La presentación en papel podrá efectuarse en el Servicio de Impuestos Indirectos del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Paseo de Errotaburu 2, 20018 San Sebastián) o en alguna de las oficinas de atención ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas.

*Dos.* Se aprueba el anexo II, con el contenido incluido en el anexo de la presente orden foral.

*Disposición final.*

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 15 de mayo de 2019.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.
(3241)

ANEXO

«Anexo II.

Diseño al que deben ajustarse los archivos que se generen para la presentación telemática del modelo 586 «Declaración recapitulativa de operaciones con gases fluorados de efecto invernadero».

El fichero a importar será de formato texto con los campos separados por el carácter (;).

El límite máximo de registros a importar por declaración es de 500 ventas y/o 500 adquisiciones, así que los obligados tributarios que tengan más tendrán que crear más de una declaración.

Formato del registro a importar:»

| *Deskribapena* | *Eremua Campo* | *Luzera Longitud* | *Mota Tipo* | *Descripción* |
|---|---|---|---|---|
| GFJ | 1 | 8 | A | CAF |
| Eragiketa mota | 2 | 1 | A | Tipo de Operación |
| Izen-abizenak edo sozietate izena | 3 | 50 | A | Nombre y apellidos o Razón Social |
| IFZ, IFZ-BEZ, ADB | 4 | 18 | A | NIF, NIF-IVA, DUA |
| GFJ | 5 | 8 | A | CAF |

| *Deskribapena* | *Eremua Campo* | *Luzera Longitud* | *Mota Tipo* | *Descripción* |
|---|---|---|---|---|
| Epigrafea | 6 | 3 | A | Epígrafe |
| Kudeaketa kodea | 7 | 3 | A | Código de Gestión |
| Kantitate lotua | 8 | 13 | N | Cantidad sujeta |
| Kantitate lotua eta salbuetsia | 9 | 13 | N | Cantidad sujeta y exenta |
| Lotu gabeko kantitatea | 10 | 13 | N | Cantidad no sujeta |

«* Kantitateak: azken bi zenbakiak bi zenbaki hamartarrei dagozkie.

*Atalen deskribapena.*

«(5) Eskurapena, batasun barruko eskurapena edo inportazioa»:

Atal honen barruan adierazi behar da fabrikatzaileak, inportatzaileak, batasun barruko eskuratzaileak, eta hondakinen kudeatzaileak egin duen eskurapena, baita azken horrek gas horiek suntsitu, birziklatu edo birsortzeko egindakoa ere.

Estatu barruko eskurapen bat aitortzen bada, eragiketa motan «1» jarri behar da, eta hornitzailea identifikatuko da bere izen-abizenak edo sozietate izena, IFZ, eta, edukiz gero, GFJ kodea jarrita.

Batasun barruko eskurapen bat aitortzen bada, eragiketa motan «2» jarri behar da, eta hornitzailea identifikatuko da bere izen-abizenak edo sozietate izena eta IFZ-BEZ zenbakia jarrita.

Inportazio bat aitortzen bada, eragiketa motan «3» jarri behar da, eta hornitzailea inportazioari dagokion ADBarekin identifikatuko da.

Hornitzailea identifikatzeko GFJ kodea bete behar bada, jardueraren gakoa adieraziko da maiatzaren 14ko 308/2014 Foru Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, IV. eranskinean xedatutakoari jarraituz.

Aitortzen den produktua identifikatzeko, bi datu hauek adierazi behar dira: urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. hamaika artikuluaren arabera produktuari dagokion epigrafea, eta, behar den kasuetan, maiatzaren 14ko 308/2014 Foru Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, IV. eranskinean xedatutakoagatik aplikagarri zaion kudeaketa kodea.

Lotutako eta salbuetsi gabeko kantitate gisa, adierazi behar da zer kantitate dagokion, aitortzen den urte naturalean, lotutako eta salbuetsi gabeko eragiketa bati, urriaren 29ko 16/2013 Legearen arabera. Kantitate hori kilogramotan adieraziko da, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.

Lotutako eta salbuetsitako kantitate gisa, adierazi behar da zer kantitate dagokion, aitortzen den urte naturalean, lotutako eta salbuetsitako eragiketa bati, urriaren 29ko 16/2013 Legearen arabera. Kantitate hori kilogramotan adieraziko da, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.

Zergari lotu gabeko kantitate gisa, adierazi behar da zer kantitate dagokion, aitortzen den urte naturalean, lotu gabeko eragiketa bati, urriaren 29ko 16/2013 Legearen arabera. Kantitate hori kilogramotan adieraziko da, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.

«* Cantidades: los dos últimos números se corresponden a los dos decimales.

*Descripción de los apartados.*

«(5) Adquisición, adquisición intracomunitaria o importación»:

Dentro del apartado deberán consignarse la adquisición efectuada por fabricante, importador, adquirente intracomunitario, y gestor de residuos, incluyendo la que este último efectúe para la destrucción, reciclado o regeneración de los gases adquiridos.

Si se declara una adquisición en el ámbito interno, se consigna 1 en el tipo de operación y el proveedor se identifica con su nombre y apellidos o razón social, NIF y CAF, si lo tuviere.

Si se declara una adquisición intracomunitaria, se consigna 2 en el tipo de operación y el proveedor se identifica con su nombre y apellidos o razón social y NIF IVA.

Si se declara una importación, se consigna 3 en el tipo de operación y el proveedor se identifica con el DUA correspondiente a la importación.

En caso de que deba cumplimentarse el CAF para la identificación del proveedor, deberá consignarse la clave de la actividad que corresponda conforme a lo dispuesto el anexo IV de la Orden Foral 308/2014, de 14 de mayo, por la que se aprueba el modelo 587 «Impuesto sobre Gases Fluorados de Efecto Invernadero. Autoliquidación».

Para la identificación del producto objeto de declaración deberá consignarse el epígrafe correspondiente conforme a lo dispuesto en el artículo 5 once de la Ley 16/2013, de 29 de octubre, y, en su caso, el código de gestión correspondiente conforme a lo dispuesto en el anexo III de la Orden Foral 308/2014, de 14 de mayo, por la que se aprueba el modelo 587 «Impuesto sobre Gases Fluorados de Efecto Invernadero. Autoliquidación», le sea aplicable.

Como cantidad sujeta y no exenta deberá consignarse la cantidad que, durante el año natural al que la declaración se refiera, haya sido objeto de operación sujeta y no exenta conforme a lo dispuesto en la Ley 16/2013, de 29 de octubre. Dicha cantidad se expresará en kilogramos con dos decimales y se agrupará por operador y epígrafe.

Como cantidad sujeta y exenta deberá consignarse la cantidad que, durante el año natural al que la declaración se refiera, haya sido objeto de operación sujeta y exenta conforme a lo dispuesto en la Ley 16/2013, de 29 de octubre. Dicha cantidad se expresará en kilogramos con dos decimales y se agrupará por operador y epígrafe.

Como cantidad no sujeta deberá consignarse la cantidad que, durante el año natural al que la declaración se refiera, haya sido objeto de operación no sujeta conforme a lo dispuesto en la Ley 16/2013, de 29 de octubre. Dicha cantidad se expresará en kilogramos con dos decimales y se agrupará por operador y epígrafe.

EK\CV GAO-I-2019-03241

«(6) Salmenta edo entrega edo autokontsumoa»:

Atal honen barruan adierazi behar da fabrikatzaileak, inportatzaileak, batasun barruko eskuratzaileak, birsaltzaileak eta hondakinen kudeatzaileak egindako salmenta edo entrega edo autokontsumoa, zergari lotua, lotu gabea, edo salbuetsia.

Estatu barruan egindako salmenta edo entrega bat aitortzen bada, eragiketa motan «1» jarri behar da, eta hornitzailea identifikatuko da izen-abizenak edo sozietate izena, IFZ, eta, edukiz gero, GFJ kodea jarrita.

Aitortzen den salmenta edo entrega Estatutik kanpo baina Europar Batasunaren barruan kokatutako hartzaile bati egin bazaio, eragiketa motan «2» jarri behar da, eta hornitzailea identifikatuko da izen-abizenak edo sozietate izena eta IFZ-BEZ zenbakia jarrita.

Aitortzen den salmenta edo entrega Europar Batasunetik kanpo dagoen hartzaile bati egin bazaio, eragiketa motan «3» jarri behar da, eta hartzailea esportazioari dagokion ADBarekin identifikatuko da.

Autokontsumo bat aitortzen bada, eragiketa motan «4» jarri behar da, eta hartzailea identifikatuko da aitortzailearen izen-abizenak edo sozietate izena, IFZ eta GFJ kodea jarrita.

Hornitzailea identifikatzeko GFJ kodea bete behar bada, jardueraren gakoa adieraziko da maiatzaren 14ko 308/2014 Foru Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, IV. eranskinean xedatutakoari jarraituz.

Aitortzen den produktua identifikatzeko, bi datu hauek adierazi behar dira: urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. hamaika artikuluaren arabera produktuari dagokion epigrafea, eta, behar den kasuetan, maiatzaren 14ko 308/2014 Foru Aginduak, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onartzen duenak, IV. eranskinean xedatutakoagatik aplikagarri zaion kudeaketa kodea.

Lotutako eta salbuetsi gabeko kantitate gisa, adierazi behar da zer kantitate dagokion, aitortzen den urte naturalean, lotutako eta salbuetsi gabeko eragiketa bati, urriaren 29ko 16/2013 Legearen arabera. Kantitate hori kilogramotan adieraziko da, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.

Lotutako eta salbuetsitako kantitate gisa, adierazi behar da zer kantitate dagokion, aitortzen den urte naturalean, lotutako eta salbuetsitako eragiketa bati, urriaren 29ko 16/2013 Legearen arabera. Kantitate hori kilogramotan adieraziko da, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.

Zergari lotu gabeko kantitate gisa, adierazi behar da zer kantitate dagokion, aitortzen den urte naturalean, lotu gabeko eragiketa bati, urriaren 29ko 16/2013 Legearen arabera. Kantitate hori kilogramotan adieraziko da, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.»

«(6) Venta o entrega o autoconsumo»:

Dentro del apartado deber consignarse la venta o entrega o el autoconsumo efectuado por fabricante, importador, adquirente intracomunitario, revendedor y gestor de residuos esté sujeto, no sujeto o exento.

Si se declara una venta o entrega en el ámbito interno, se consigna 1 en el tipo de operación y el destinatario se identifica con su nombre y apellidos o razón social, NIF y CAF, si lo tuviere.

Si se declara una venta o entrega a destinatario sito fuera del ámbito interno y dentro de la Unión Europea, se consigna 2 en el tipo de operación y el destinatario se identifica con su nombre y apellidos o razón social y NIF IVA.

Si se declara una venta o entrega a destinatario sito fuera de territorio de la Unión Europea, se consigna 3 en el tipo de operación y el destinatario se identifica con el DUA correspondiente a la exportación.

Si se declara un autoconsumo, se consigna 4 en el tipo de operación y el destinatario se identifica con el nombre y apellidos o razón social, NIF y CAF correspondiente al declarante.

En caso de que deba cumplimentarse el CAF para la identificación del proveedor, deberá consignarse la clave de la actividad que corresponda conforme a lo dispuesto el anexo IV de la Orden Foral 308/2014, de 14 de mayo, por la que se aprueba el modelo 587 «Impuesto sobre Gases Fluorados de Efecto Invernadero. Autoliquidación».

Para la identificación del producto objeto de declaración deberá consignarse el epígrafe correspondiente conforme a lo dispuesto en el artículo 5 once de la Ley 16/2013, de 29 de octubre, y, en su caso, el código de gestión correspondiente conforme a lo dispuesto en el anexo III de la Orden Foral 308/2014, de 14 de mayo, por la que se aprueba el modelo 587 «Impuesto sobre Gases Fluorados de Efecto Invernadero. Autoliquidación», le sea aplicable.

Como cantidad sujeta y no exenta deberá consignarse la cantidad que, durante el año natural al que la declaración se refiera, haya sido objeto de operación sujeta y no exenta conforme a lo dispuesto en la Ley 16/2013, de 29 de octubre. Dicha cantidad se expresará en kilogramos con dos decimales y se agrupará por operador y epígrafe.

Como cantidad sujeta y exenta deberá consignarse la cantidad que, durante el año natural al que la declaración se refiera, haya sido objeto de operación sujeta y exenta conforme a lo dispuesto en la Ley 16/2013, de 29 de octubre. Dicha cantidad se expresará en kilogramos con dos decimales y se agrupará por operador y epígrafe.

Como cantidad no sujeta deberá consignarse la cantidad que, durante el año natural al que la declaración se refiera, haya sido objeto de operación no sujeta conforme a lo dispuesto en la Ley 16/2013, de 29 de octubre. Dicha cantidad se expresará en kilogramos con dos decimales y se agrupará por operador y epígrafe.»

EK\CV GAO-I-2019-03241